



AURRETIAZKO IDEIAK

HELBURUAK

- Ikasleek liztor asiaticoa eta orohar espezie inbaditzaileei buruz, aldez aurretik dituzten ezagutzak identifikatzea eta antolatzea.
- Elkarlana eta pentsamendu kritikoa sustatzea.

JARDUERA

Kontzeptu-mapa bat sortzea.

MATERIALAK

- Arbel zuriak edo paper-orri handiak
- Koloretako errotuladoreak
- Postit-ak edo ohar itsasgarriak
- Ordenagailuak edo tabletak (aukerakoa, informazio gehigarria bilatzeko edota baliabide digitalak erabiltzeko)

DENBORA

55'

JARDUERAREN GARAPENA

1. Sarrera (10 minutu):

- Azaldu labur jardueraren helburua eta liztor asiaticoa eta espezie inbaditzaileak ezagutzearen garrantzia.
- Ikasleak talde txikitan antolatu (3-4 pertsona).

2. Ideia-jasa (10 minutu):

- Talde bakoitzak arbel zuri bat edo paper-orri handi bat eta errotuladoreak jasotzen ditu.



- Eskatu talde bakoitzak idatzi dezala, liztor asiaticoa eta espezie inbaditzaileei buruz dakitena, ideia guztiak jasotzea garrantzitsua da.
- Anima itzazu kolore desberdinak erabiltzera gai desberdinetarako (adibidez, gorria liztor asiaticoarentzat, urdina beste espezie inbaditzaileentzat, berdea globalizazioaren ondorioentzat...).

3. Ideien antolaketa (10 minutu):

- Ideia-jasa amaitu ondoren, talde bakoitzak bere ideiak kontzeptu-mapa batean antolatu behar ditu. Post-itak erabil ditzakete ideiak mugitzeko eta horiek konektatzeko modurik onena aurkitzeko.
- Talde bakoitzari, kategoria nagusiak (adibidez, liztor asiaticoaren ezaugarriak, ekosisteman duen eragina, beste espezie inbaditzaile batzuen adibideak...) eta azpikategoriak identifika ditzaten eskatu.

4. Aurkezpena eta eztabaida (15 minutu):

- Talde bakoitzak bere kontzeptu-mapa aurkezten die gainerako ikasleei.
- Eztabaida irekia sustatzen du, ikasleek galderak egiteko eta beste talde batzuen kontzeptu-mapei informazioa gehitzeko aukera izan dezaten.

5. Azken gogoeta (10 minutu):

- Jarduera amaitzeko, ikasitakoari eta informazio hori proiekturako baliagarria izateari buruzko hausnarketa egiten da.
- Ikasleei banakako hausnarketa labur bat egiteko eska diezaiekezu: zer da gehien harritu zaituen ideia? Zein da sakonago ikertu nahiko zenukeen gaia?